Eskola eraikinen plan zuzendariaren bigarren fasean (2008-2012) aurreikusitua da bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzea, irakaskuntzari ekinen liokeena 2012-2013 ikasturtean; kalkulatu da inbertsioa 4.750.000 eurokoa izanen dela.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Udaleko Hirigintza Alorrarekin adostu du Buztintxuriko poligonoko E.1 etxesaileko 8.867 m<sup>2</sup>-ko etxe azpisailaren lagapena.

Berriozar

Egungo ikastetxea handitzeko plana eta inbertsio egutegia:

Berriozarko ikastetxe publikoa 2006an handituko da, eta kalkulatu da 312.776 euroko gastua izanen duela.

Eraikin berrien plana

2008/2011 ikasturteetarako inbertsio eta eraikin berrien planean sartu egin da ikastetxe publiko berri bat eraikitzea Berriozarren; kalkulaturiko inbertsioa 4.334.352,00 eurokoa da.

Artikaberri:

Hezkuntza Departamentuaren iritziz, Artikako auzune berritik etorriko diren ikasleak Iruñeko Ezkaba poligonoan aurreikusitako eskola eraikinek hartuko dituzte.

Sarriguren:

Azpiegituren plan zuzendarian aurreikusirik dago ikastetxe publiko bat eraikitzea Eguesibarren (Sarriguren/Badostain); horretarako inbertsio egutegia hauxe da:

2007: 180.000 euro. Proiektua egitea

2008-2009: 4.330.000 euro. Ikastetxea eraikitzea

Honakoak dira Sarrigurengo auzunean eskola ekipamenduetarako aurreikusita dauden lurzatiak:

Lurzatia	Lurzatiaren zedula	Azalera m <sup>2</sup>
DD-2	214	2.295
DD-3	215	17.667,20
DD-4	216/559	7.789,63
DD-5	217/560	9.289,93
DD-6	218	2.720,64
DD-7	219	1.503,14
DD-8	220	2.497,18
DD-9	221	4.699,68

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 18an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## Galdera, Altsasu-Urdiain industrialdea eraikitzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak Altsasu-Urdiain industrialdea eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko urriaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Askotariko parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Etxegarai Andueza jaunak galdera egin du Altsasu-Urdiain industrialdea eraikitzeari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

#### 1. galdera

Joan zen maiatzaren 18an, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak, ukitutako udal guztiei informazioa eman ondoren, eskatu zion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari 2001ean aurkeztutako udalez gaindiko planaren tramitazioari berriz ekin ziezaion, behin betiko onespena lortzeko.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak eskatu digu erantzun ditzagun alde horretako udalek bere garaian aurkeztu zuten industria garapenaren ereduari buruzko alegazioak.

#### 2. galdera

Poligonoa garatzeko balizko epe eta aurreikuspenak direla eta, lurzorua kalifikatu eta jarduketari babes legala emanen dion proiektu sektorialaren behin betiko onespena beharko da. Ondoren,

adostu beharko da lurzoruaren erosketa eta urbanizazio proiektua tramitatu.

Udalez gaindiko plana urte hau amaitu aurretik behin betikoz onesten bada, eta lurzoruaren erosketa adosteko eta urbanizazio proiektua tramitatzeko sei bat hilabete beharko direla kontuan harturik, urbanizazio lanak 2006ko uda amaitu aurretik has daitezke eta poligonoaren lehen fase

operatiboa amaiturik egon 2007 amaitu baino lehen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 21ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

## **Galdera, Erroibarko Udaleko plana Aurizberriko UE-1ean aldatzeko espedienteari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Erroibarko Udaleko plana Aurizberriko UE-1ean aldatzeko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Erroibarko Udalaren Hirigintza Planean Aurizberriko UE-1 exekuzio unitatearen aldaketa espediente, Soraundi, S.L. enpresak sustatua, behin betikoz onetsi zuen 796 Foru Aginduari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Espedienteari buruz hiru galdera egin dira. Lehendabiziko biak errepikatu egiten dira eta galderaren xedea da jakitea zergatik Lurraldearen Antolamenduko Zerbitzuak eman zuen, 2004ko abuztuaren 5ean, espedientearen aldeko iritzia "baloratu eta kontuan hartu gabe Kultura eta Turismo Departamentuko Ondare Arkitektonikoaren Atalak 2004ko martxoaren 17an emaniko txostenaren iritzia eta edukia, eta bai oinarri hartuz Ondare Arkitektonikoaren Zerbitzuak emaniko txosten bat, batere zerikusirik ez duena martxo-

ren 17ko txostenean proiektuari buruz kontrako iritzia emateko erabili ziren arrazoiekin"

Hirugarren galderak eskatzen du proiektu honetan Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 52. artikulua ezartzen duen etxebizitza babestuen gutxieneko estandarra bete gabe uzteko arrazoia.

- Lehendabiziko galderei dagokienez zehaztu beharra dago, hasteko, ez dela zuzena José Miguel Nuin jaunak dioena galderaren hasierako lerroketan, esaten duenean "Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren bigarren txosten horrek, edukia-aren aldetik, ez duela zerikusirik Arkitektura Ondarearen Atalak, 2004ko martxoaren 17an, emaniko lehenbiziko txostenarekin" Eta baieztapen hori ez dela egia frogatzeko aski da hitzez hitz aipatzea Ondare Historikoaren Zerbitzuaren bigarren txosten hori, zuzendariak izenpetua:

*2003ko irailaren 4an, Aurora Villanueva Martínez andreak txosten bat eskatu zion Arkitektura Ondarearen Atalari higiezinaren proiektu batek Santiago Bidean izan dezakeen eraginari buruz. (...)*

*Ikuskatzea egin zen bertan, eta ahozko harremanetan jarri Erroibarko Udaleko idazkariarekin. Planteatutako proiektuak ez zion eragiten Santiago Bidearen trazadura fisikoari, 90/1988 Foru Dekretuak ezarritako zedarritzearen arabera, eta beraz ez zuen araudirik urratzen eta Arkitektura Ondarearen Atalak ez zuen txostenik eman beharrik.*

*Proiektuari eta Santiago Bidearekin duen loturari buruz egin daitezkeen oharrek ez dute inongo legeko araudiren sostengurik eta pertsona batek bere aldetik eginak izanen dira.*

*Iruñean, 2004eko ekainaren 22an.*

• Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak espediente hau ebaztean izan duen jokabidearen logika ulertzeko Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen izpiritura eta zehaztapenetara jo behar da, hasteko. Administrazioen arteko koordinazioa (bai horizontala bai bertikala), etengabeko elkarrizketa eta hirigintza planen tramitazioan esku hartzen duten guztien eskumenen eta erantzukizunen errespetua nagusi diren giroan, horixe da departamentu honek, behintzat, jardun-oinarri eta langai duena. Jardun oinarri horretarako bidea da LOFTUK berak ezarritako tramitazio prozeduran (ikus kasu honetan 79.2, 70. eta 71. artikulua).

Prozedura honetan Nafarroako Gobernuak (funtsean) bi aldiz esku hartu du. Lehenik, udalak espediente behin-behineko onetsi aurretik; txosten horrek ez du ebazpenik ekartzen eta funtsean haren helburua da udalari helaraztea honek, espediente behin-behineko onetsi aurretik, kontuan hartu beharko litzuzkeen iritziak eta oharra (proposamenak justifikatzeko edo zuzentzeko, kasu kasuko); hizpide dugun kasu txostena 2004ko apirilaren 19an. Bigarrenik, udalak, behin betikoz onesteko, dokumentua igorri eta jaso ondoren; kasu honetan Lurraldearen Antolamenduko Zerbitzuaren txostena (espeditente horretan abuztuaren 5ekoa da) espedientearen ebazpena dakar, eta beraz proposamenaren legezkotasuna egiaztatzea mugatzen da eta dokumentazio berria har dezake kontuan, udalak nahiz sustatzaileak aurkeztuak edo txosten sektorial berriak.

Logikoa denez, (bestela prozedurak ez bailuke zentzurik), gobernuaren iritzia lehen fasean aldatu egin daiteke edo bere eskumenen esparrura mugatu bigarrenetan. Horixe da funtsean galderaren xede den espedientearekin gertatu dena. 2004ko apirilaren 19an eman eta Arkitektura Ondarearen Atalaren iritzia jasotzen duen txostenaren "ezadostasuna", desagertu egin zen abuztuaren 5eko txostenean, udalaren lan bilera batzuk izan eta hainbat agiri, bertakoak nahiz hirugarrenenak (adibidez, aipatu den Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena) aurkeztu ondoren, departamentu honen iritziz udalaren proposamenaren legezkotasuna arrazoitu eta justifikatzen baitzuten.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak abuztuaren 5ean emaniko txostenaren zati hori hitzez hitz emanen dut ondotik, eta udalak espedienteari aurkeztu zion eta galderari begira interesa duen dokumentazioaren kopia erantsirik:

### 1. Kontuan hartu beharrekoak.

*A. Lurraldearen Antolamenduko Zerbitzuaren 2004ko apirilaren 19ko txostenean oinarriturik.*

*Txostena bat dator Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen 70.4 artikuluan aurreikusitakoarekin ("Nafarroako Gobernuko departamentu desberdinetako inguruabar sektorialak biltzen dituen txosten orokorra"). Alkateak eta arloko ardura duen zinegotziak izan zuten txosten horren berri, legezko epeetan eman ez zena, aldaketa behin-behineko onetsi eta berehala. Txosten honen helburua da udalari jakinaraztea, planaren jendaurreko epean, tramitatzeko ari den espedienteari buruz gobernuak duen iritzia eta jarrera, egokiak diren inguruabar sektorialen ikuspuntutik (hirigintzakoak barne), eta bere baitan bil ditzake, helburu horren arabera, bai iritzi teknikoak bai oharra espedienteko proposamenen lege txertatzearen inguruan.*

Lehen esan dugunez, txostena ez zen aldekoa, bi arazo motarengatik: alde batetik, Aurizberrik berezkoa duen hiri egiturarekin bat ez etortzea (kale bakarrek herria), eta aurrekin bat dela etorkizunean aldaketa gehiago egiteko, ekarriko luke tenak hiriko hiri egitura haustea; bestetik, txostenean esaten zenez, aldaketa berrikuspentzat har zitekeen, eta ez planaren aldaketa puntualtzat, aurreko oharrean azaldutakoagatik eta planeamenduan indarra duten aurreikuspenen aldean handitzeak duen bolumenagatik.

Apirilaren 19ko txosten orokorraren balorazio hori Hirigintza Planeamenduko atalburuaren iritzian oinarritzen zen (2004ko apirilaren 15eko txostena) eta Arkitektura Ondarearen Ataleko arkitektoarenean (2004ko martxoaren 17ko txostena).

Erroibarko Udalak igorri du, behin-behineko onetsitako dokumentazioarekin batera, alkateak izenpetutako alegazio orri bat, non aintzat hartzen duen lehenago deskribaturiko txosten orokorraren edukia. Orri horretan adierazten du "ordezkatzeko udal udalak Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zerbitzuko zuzendariak 2004ko apirilaren 15ean emandako txostenaren berri izan du", eta "txostenaren edukia ikusirik", sei alegazio aurkeztu ditu, honi buruzkoak:

*– Behin-behineko onetsitako agiriaren izapideak eta eginbideak behar bezala egitea, eta nabarmendu alegazioen epean bi baizik ez direla jaso, eta Kontzejuko Junta elkarlanean aritu dela udalarekin, alegaziorik aurkeztu gabe.*

*– Aurizberriko hiri garapenaren usadiozko ereduaren haustura aipatzen duten txostenekin ez dagoela ados, eta aipatzen du txostena egin*

*duten zerbitzuak haien eskumenen mugak gainditu dituztela, eta argudio batzuk ematen ditu, hazkunderako ildo berriak lehendik dauden bilbeak hautsi gabe irekitzeko udal erabakien sostengarri.*

*Puntu honetan argitu behar da ez gatzela inolaz ere bat alkatearen balorazioarekin, esaten duenean Nafarroako Gobernuak apirilean egindako txostenak "bere eskumenen mugak eta erakunde honen esku-hartzerako parametro logikoak gainditzen dituela, haren eskumen materialetatik haratago doala neurri handi batean, eta horrela legeria indarduna argi eta garbi urratzen duela". Ohar horrek erakusten du txosten horren edukiaz eta norainokoaz duen ikuspegia oso urruti dagoela Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak duen ikuspuntutik; izan ere, departamentuaren iritziz, txosten horretan jasota daude, bat eginik, (LFOTUrekin bat) espedienteari eragiten dioten inguruabar sektorialak, eta beraz txostenak orientazio- eta lankidetzazizaera du, alegazio egileak ikusten duena baino sakonagoa. Txosten honen birtualtasuna da laguntza eraginkorra ematen duela udalak espedientearen tramitazioan hartu beharreko erabakiei begira. Horretarako nahitaezkoa da txostena egiten duten zerbitzuek askatasunez adieraztea antzematen dituzten legezketasun arazoak ez ezik iritziak ere, iritziak badira ere baimenduak baitira. Logikoa denez, txostenak adierazten du halaber proposamena behin betikoz onesteko ardura duenaren abiapuntuko jarrera, baina egia da orobat jarrera hori eztabaidagarria dela eta berriz aztertu daitekeela, espedientearen ebazpenari ez dagoen fase batean gertatzen den esku-hartzea den aldetik.*

*Izan ere, orain ematen den txostenak, espedientearen ebazpena dakarrenak, teknikoki onargarritzat hartzen ditu alkateak emandako hirigintza arloko argudioak. Arrazoitze horren alde agertzen Arkitektura Ondarearen Zerbitzuko zuzendaria 2004ko ekainaren 22an eginiko txostenean, aplikatzekoa den araudiari lotzen zaiona orain, adierazten baitu "proiektuak ez dio eragiten Santiago Bidearen trazadura fisikoari (...) eta beraz ez du araudirik urratzen".*

*– Aldaketa eragin duten arrazoen justifikazioa eta garatzen diren hirigintza proposamenena.*

*– Espedientea aldaketatzat hartzea eta beraz ez du planaren berrikuspenik eskatzen.*

*Ondorioz, izenpetzen duenak uste du aski arrazoi dituela udalak espedientearen tramitazioarekin aurrera jarraitzea erabakitzeko, eta ez dagoela zergatik atzera bota behin betiko onespena."*

*Txostenak beste ohar batzuk egiten ditu hortik aurrera.*

*• "Proiektu honetan Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Legeko 52. artikulua ezartzen duen etxebizitza babestuen gutxieneko estandarra bete gabe uzteko" arrazoiari buruzko galderari dagokionez, berriz, esan beharra dago Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren eskumena dela betebeharrori murriztu edo kentzea 3.000 biztanleko udalerrietan, aurreikuspenak ez betetzea komenigarri egiten duten arrazoiak daudelarik.*

*Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuaren txostenean, espedientea onestea ekarri zuen horretan, eta lehendabizikoak aipatzen duen Etxebizitza Zerbitzuaren beste txostenean gai honi buruz jasota dauden oharrei erreparatu beharko zaie.*

*Hona, hitzez hitz, Lurraldearen Antolamendu Zerbitzukoak dioena:*

*35/2002 Foru Legearen 52.1 artikulua araber, etxebizitzetarako ahalmen berriaren 100eko 50, gutxienez, babes publikoko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeko erabiliko da. (Aurreikusitako etxebizitza kopuruaren igoerari eraginen lioke, hau da, gehitutako 16 etxebizitzei). 35/2002 Foru legearen 52.2 artikulua araber, beharkizun hori murriztu edo kendu ahalko da, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren baimenarekin, 3.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan, behar bezala justifikatzen bada ez dela komeni aurreikuspen horiek gauzatzea.*

*Espediente honetan ez da deus aipatzen horri buruz. Halere, Erroko planaren aldaketa horrekin batera, udalak eskatu dio kontseilariari betebeharrorretatik salbuetz dezan Erroko Kontzejuaren UE-16 unitatean, haran osoan eta, are gehiago agian Aurizberriko egoeran erabiltzeko modukoak diren arrazoiak tarteko. Eskaera horrek Etxebizitza Zerbitzuaren eta Lurraldearen Antolamendu Zerbitzuaren aldeko txostenak ditu, eta beraz ulertzen da irizpide hori bera erabil daitekeela espediente honetan ere.*

*Etxebizitza Zerbitzuaren txostenak (2004ko uztailaren 1ekoa), Erroko UE-16 unitatearen aldaketaren tramitazioan erabilitakoak eta, hain zuzen, babeseko etxebizitzak eraikitzeko beharkizunetik salbuesteko xedea zuenak, hauxe dio, besteak beste:*

*(...) (Erroko) planeamenduak ezartzen duen familiabakarreko etxebizitza mota nekez eraiki ahalko da babes ofizialeko etxebizitzaren prezioan.*

*Erroibar ez da funtsezkoa Nafarroako Gobernuaren babes etxebizitzaren arloko politikarako, eta, udalak berak dioenez, ez dago mota horretako etxebizitza eskaera nabarmenik, eta horregatik eta esandakoagatik, etxebizitzaren % 50 babes publikoko araubideetarako erabiltzeko beharkizunetik salbuestearen aldeko txostena eman zen.*

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 27an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

## **Galdera, Tafallako Azcona liburutegiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Tafallako Azcona liburutegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 3ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroako Gobernuak berriki interes kulturalako ondasun deklaratu duen Azcona familiaren liburutegiarekin lotura duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Erantzuna eman aurretik, esan beharra dago galderaren edukia ez dela zehatza; izan ere, kultur intereseko ondasunaren deklarazioak, indarra duten legeen arabera, ez baitakar berekin ondasunaren titulartasuna besterentzea.

Foru erkidegoko titulartasun pribatuko liburutegiarten artean, José María Azcona y Díaz de Rada jaunak (1882-1951) sortu eta egun Ascensión Martinicorena andrearena dena da garrantzitsu eta entzutetsuenetakoa bat.

Hura sortu zuen pertsonaren jardura eta nor-tasun intelektuala fidelki islatzen du liburutegiak: idazle eta liburuzalea, karlistadetan, genealogian eta heraldikan aditua, Frantzisko Xabierkoaren bibliografoa eta liburuen bildumazale handia.

Nafarroako Gobernuak, berriki, abuztuaren 22ko 106/2005 Foru Dekretuaz, interes kulturalako ondasun deklaratu du aipatu liburutegia.

Interes kulturalako ondasunaren deklarazioak xede du foru erkidegoarentzat garrantzi handikoa den ondare horri eustea; hori guztia Espainiako ondare historikoa arautzen duen uztailaren 25eko 16/1985 Legeko 2.1 artikuluari jarraituz.

Kontua da, azken batean, behar diren lege-neurriak hartzea Nafarroako Foru Komunitateko aparteko liburu-ondare horren osotasunari eusteko; izan ere, hura hemen gera dadin bermatu behar da eta saihestu Nafarroatik kanpora atera dadin edo besterendu dadin, administrazioari lehenatasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubi-deak baliatzeko aukerarik eman gabe.

Liburutegi honen aparteko interesa ikusita, eta badagoenez Liburutegi Zerbitzuak eginiko inbentario zehatz eta automatizatua, gure liburu ondarekoa den bilduma hau Nafarroako Foru Komunitatearentzat izan dadin lortzeko, 2004ko uztailan, Kultura Departamentuak liburutegia interes kulturalako ondasun deklaratzeko espedientea ireki zuen, ondare historikoari buruzko legean ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako "herritar guztiek, ikertzaileak alde batera utzita, liburutegi horretako funtsak eskura eduki ahal izateko" [sic] hartu behar dituen neurriei dagokienez, jakina denez, interes kulturalako ondasunaren deklarazioak ez dakar berekin ondasunaren titularitatea aldatzea, eta, horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ez du inongo eskurantzarik jabetza pribatukoa den eraikin bateko bisita eta kontsulta araubidea ezartzeko, eta horixe da Azcona Liburutegiaren egoera; izan ere, legezko titularrei dagokie hori egitea.

Bestalde, aipatu beharrekoa da ezen Azcona Liburutegia liburutegi espezializatua dela, funts bibliografiko oso jakin batzuk dituen, interes kultural, zientifiko eta historikokoak, berriaz erkidego zientifikoarentzat interesekoak direnak; bidenabar, esan beharra dago Azcona familiak eskuzabaltasunez hartu dituela beti horra hurbildu diren erkidego zientifikoko kideak, eta haien lana erraztu duela.

Azcona Liburutegia jendeari, oro har, zabaltzeko erabakia hartzeko, zorrotasun teknikoaz jokatu behar da, eta kasu honetan Liburutegi Zerbitzuko teknikariek, titularitateari buruz berriki esandakoa alde batera utzita, ezezko txostena eman dute aukera horri buruz, zeren eta berezko balio handia duen agirien funtsa izanik ere, ez du erakusketa publikorako, herritar guztientzako, interesik, ez baita ez museo bat ez interpretazio zentro bat.

Nafarroako Gobernuak, interes kulturalen ondasunaren deklarazioa onesterakoan, behar diren neurriak hartzeko betebeharra bete du, legearen babesarekin, foru erkidegoan dagoen eta

balio handia duen liburutegi hori bertan gera dadin, eta salgai jartzekotan ere, behar diren berme guztiekin jar dadin.

Galdegileak jakin nahi du, bestalde, Ascensión Martinicorena andrearekin akordiorik ba ote dugun; esan behar dugu uneoro Nafarroako Gobernuak informazioa emateko eta lankidetzak eskaintzeko jarreraz jokatu duela liburutegiko titularrekin, maila guzti-guztietan, zeren eta gure ustez bi aldeek, beren eskubide eta interes legitimoak uko egin gabe, formula egokia aurkitu behar baitute ordezkaezina den liburu-altxor hori Nafarroarentzat gera dadin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 21ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, Burlatako Santa María zentroko langileen eskakizunei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Burlatako Santa María zentroko langileen eskakizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Burlatako Santa María zentroko langileen eskakizunei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Lehenbizi, beste ezer baino lehen eta ikusita zein den galderaren planteamendua, honako zehaztapen hauek egin beharrean gaude:

Galdegileak, bere idazkian, langileek esandakoa transkribatzen du hitzez hitz; hona: “zain gaude ea Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak gure ordainsariak akordioen arabera gaurkotzeko beharrezkoak diren kontusailak noiz ezarriko dituen”.

Horri buruz esan beharra dago aztergai diren kontusailak 2005. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan badaudela; aurrekontu horiek abenduaren 29ko 18/2004 Foru Legeaz onetsi ziren. Izan ere, 923002-93100-4810-313500 kontusailean, “ezgaitasunak dituzten pertsonentzako elkarteekin itun eta hitzarmenak” izenekoan, hitzarmen kolektiboa sinatzearen ondorioz, behar diren zenbatekoak jasota daude ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko titularitate publikoko zentron kudeaketarako sinatu ziren hitzarmenen aldaketatik heldu diren kostuei aurre egiteko. Halaxe dago jasota Nafarroako Gobernuak 2005eko otsailaren 28an hartutako erabakian, zeinean baimena ematen baitzaio Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari hitzarmen kolektiboarekin loturiko gastuak hitzartzeko.

Akordio hartan ezarri zen 2005., 2006., 2007. eta 2008. urteetarako hitzarmen kolektiboaren ondoriozko kostuei egin behar zitzaizela aurre. Hartan, ez zen aurreikusitako baimena ematea 2004. urte-

ko soldaten inguruan hartutako erabakitik heldutako kostuei aurre egiteko; hori dela eta, une hauetan, Nafarroako Gobernuan behar den baimena eskatzea tramitatzen ari da. Horrenbestez, 2004. urteko soldaten inguruan egin zen akordioa ordaintzeko behar diren kopuruak kontusail beraren kredituen kargura ordainduko dira, eta nahikoa ez balitz, 922003, “Laguntza sozio-sanitarioa” izeneko aurrekontu proiektu bereko kontusailetan erabilgarri dauden kredituen kargura.

Eta aurreko guztia esanik, eta egin diren galdera zehatzei erantzunez, honakoa esan behar dut:

1. Zer-nolako proposamena dauka Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak, erantzuna emateko langileek eginiko eskaerei, hain zuzen ere osagarriak gaurkotzeari, hitzarmena egiazko plantillei aplikatzeari eta hitzarmenetik kanpo gelditu ondoren kasuan kasuko akordioa 2005eko abenduan bukatzen zaien zentroein dagoen?

Osagarriak gaurkotzeari dagokionez, alde batera utzita galderan ez dela zehazten zein osagarri buruz ari den, esan beharra daukat Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kalkuluak egin dituela ezartzeko zein kopuru ordaindu behar dizkion enpresei hitzarmenak aldatu izatearen ondorioz; kalkulu hori hemendik gutxira egingen da, hitzarmen kolektiboa sinatu ondoren, haren testuaren hitzez hitzeko interpretazioa kontuan hartuz eta hartan jaso ez diren balizko asmoak kontuan hartu gabe.

Hitzarmena plantilla errealei aplikatzeari dagokionez, kontuan hartu behar da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua eta EANA elkarteak osatzen duten entitateak –elkarte hori da bere langileekin hitzarmen kolektiboa negoziatu duena– lotzen dituen harremana ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko titularitate publikoko zentroak kudeatzeko kontratuak direla. Horrenbestez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren jarduketak bideratu behar dira soilik kontratu horietan ezarritako baldintzak betetzera bideratu behar dira, azken xede jakin batekin: egoitza horietan bizi diren ezgaituek daitezkeen zainketa onenak jasotzea.

Enpresek beren helburu eta interesetarako egokitzen duten langileen kopurua izan dezaketenez, eta, are gehiago, era guztietako jardueratan ari daitezkeenez, bai eta beste enpresa edo administrazioekin era guztietako kontratuak



egin edo hitzarmen kolektibo ezberdinak dituzten langileak eduki ere, ez da logikoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak bere gain hartzea enpresetako plantilla errearen kostua; bai, ordea, soilik hitzarmenak betetzeari atxikitako langileen kostua. Kontratu horiek gidatzen dituzten klausula teknikoaren kasuko orrietan eta klausula administratiboaren orrietan jasota daudenak dira langile horiek. Halakorik egin ezean, ez luke inolako zentzurik izanen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari eman zion baimenak, hain zuzen ere 2005eko otsailaren 28koak; baimen horren xedea zen "Ezgaitasuna duten pertsonen laguntzeko sektorearen hitzarmena, titularitate publikoko zentro itunduak.".

Aipatu beharra dago, hitzarmenetik kanpo geratu ziren zentzuei dagokienez –haien akordio partikularrak 2005eko abenduan bukatuko dira–, nabarmena den bezala titularitate publikokoak izan ez eta ezgaituei arreta ematen dieten zentroak kudeatzen dituzten entitateek askatasuna dutela hitzarmen kolektiboari edozein unetan biltzeko. Hala eta guztiz ere, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan ez da inongo krediturik aurreikusitako 2006. urteko aurrekontuetako zirriborroetan arrazoi horiek direla medio eginiko itunak aldatzeko.

2. Zer-nolako epe ezarri dio departamentuak bere buruari, lehen azaldutakoa erregularizatzeko, hain zuzen ere, langileek eskaturikoa?

2005-2008 hitzarmenari berari dagokionez, behar diren txosten ekonomikoak egin dira itun bakoitzari dagozkion zenbatekoak ezartzeko. Behin behar den prozedura tramitatu ondoren, itu-

nak aldatzeari ekinen zaio: erabiltzaile eta hilabete bakoitzeko modulua handituko da harik eta hitzarmena sinatzearen ondorioz langileria kostuetan izan den igoera xurgatu arte. Handitze horrek hitzarmena aldatzen den unetik izanen du indarra. 2005eko urtarrilaren 1etik hitzarmena sinatzen den egunera arte sortzen diren kopuruak ordainketa bakarrean ordainduko dira aldaketa horrek indarra hartzen duen egun berean.

Lansariei buruzko 2004ko akordioari dagokionez, esana dudan bezala, gobernuak otsailaren 28an hartu zuen erabakiak baimena ematen zion Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari soilik gastu konpromisoak hartzeko hitzarmen kolektiboak 2005etik 2008ra bitarte izanen zituen kostuek eragindako aurrekontu premiei aurre egite aldera. Hori dela eta, une honetan tramitatzen ari da gobernuari zuzendutako beste baimen eskaria, hain zuzen ere 2004ko lansariei buruzko akordioaren kostuak hitzarmenetan bertan jasotako egunean ordaindu ahal izan daitezen.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak daukan aurreikuspenen arabera, enpresei behar diren kopuruak ordaindu ahal izateko 2005eko azaroa bukatu baino lehen, horien barne direla lansariei buruzko 2004ko akordiotik ondorioztatzen direnak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005ko urriaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## Galdera, saneamendu kanonaren bilketari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak saneamendu kanonaren bilketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 17ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du Saneamendu kanonaren bilketari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Gobernuaren eledunaren erantzuna.

82/1990 Foru Dekretuak arautzen ditu Nafarroako hondakin uren saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1998 Foru Legearen artikuluetan araututako zehaztapen orokorrak gauzatzeko behar diren mekanismo administratiboak eta kudeaketaren xehetasunak.

Dekretu horren 24. artikuluko 7. lerrokadak hauxe dio, hitzez hitz:

“Sozietate publikoak konpentsazio prozedura bat ezarri ahalko du egokia iruditzen zaionean finantza kudeaketa hobe izan dadin, toki entitateek inbertsioak, zerbitzuaren ustiaketa eta kanonaren diru-bilketa kudeatzea dela-eta. Kasu horietan hitzarmen berriazko bat izenpetuko da, konpentsatu beharreko kontzeptuak zehaztuz.”

Horri dagokionez, NILSAk hitzarmenak izenpetu ditu, 1989az geroztik, mankomunitate hauekin:

	Hitzarmenaren data
Iruñerriko Mankomunitatea	1989/10/19
Jurramendiko Mankomunitatea	1996/09/09
Moncayoko Uren Mankomunitatea	2001/10/30
Izarbeibarko mankomunitatea	2002/02/02
Mairagako Mankomunitatea	2002/01/23

Hitzarmen horietako bakoitzean zehazturik gelditzen dira hiruhileko natural bakoitzeko kanonaren diru-bilketaren kargura konpentsatu beharreko kontzeptuak.

Iruñerria eta Jurramendiko mankomunitateetan konpentsatu egiten dira saneamenduko plan zuzendariari atxikirik dauden eta mankomunitate horiek zuzenean kudeatzen dituzten araztegietako instalazioen jardun eta mantentze kostuak, bai eta saneamendu eta arazketa zerbitzua emateak dakartzan egitura eta kudeaketa kostuak.

2004. urtean, azken kontzeptu horretan hauek izan ziren zenbatekoak:

Iruñerriko Mankomunitatea	917.712,34 euro.
Jurramendiko Mankomunitatea	91.060,00 euro.

Gainerako mankomunitateen kasuan, instalazioak Nafarroako Gobernuak kudeatzen ditu lankidetzara araubidean, eta kontuan hartzen dira soilik saneamenduko kanonaren diru-bilketak dakartzan kudeaketa gastuak. Kostu horiek, saneamenduko kanonaren kargura finantzatu ezean, mankomunitateen beste tasa batzuen kargura ordaindu beharko liriateke, ez baitute beren eskumeneko zerbitzu bat emateari baizik atxikirik ez dagoen finantza iturririk.

Hauexek izan ziren zenbatekoak kontzeptu horretan 2004. urtean:

Moncayoko Uren Mankomunitatea	10.218,29 euro.
Izarbeibarko mankomunitatea	10.221,31 euro.
Mairagako Mankomunitatea	19.166,70 euro.

NILSA sozietate publikoaren auditoriako txostenak urtero igortzen dira sozietatearen administrazio kontseilura eta Nafarroako Gobernura, bai eta Ekonomia eta Ogasun Departamentura; azken honek Foru Parlamentura igortzen du, ekitaldi bakoitzeko kontu orokorren eranskin gisa.

Sozietatea sortu zenetik 1989an, ez da inolako “enura oharririk” izan kudeaketaren inguruan, eta beraz ez da beharrezkoa ezer egitea lege indardunarekin bat etor dadin.

Auditoriako txostenak Nilsaren artxiboetan daude eta galdera egin duen Legebiltzarraren eskura, beharrezkoa irudituz gero.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urrian

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

## Galdera, adimeneko nahaste larria duten pertsonentzako tutoretza bidezko laguntza unitate bat sortzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak adimeneko nahaste larria duten pertsonentzako tutoretza bidezko laguntza unitate bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko urriaren 10eko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du adimeneko nahaste larria duten pertsonentzako tutoretza bidezko laguntza unitate bat sortzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Egun sortzen ari da tutoretza bidezko laguntza unitatea San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoan.

Gaur arte egindakoa hauxe da:

2004an laguntza unitate horretarako lokala egokitzeko lanak egin ziren.

2005ean San Francisco Javier Zentro Psikogeriatrikoko langileen lanak egokitzen aritu gara, tutoretza bidezko unitate horri langileak atxiki ahal izateko. Aurreikusitakoaren arabera, berregituraketa heldu den urteko lehen hiruhilekoan amaitzea.

Ondoren unitatearen ekipamendua eskuratuko da, lehiaketa tramitatuz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko urriaren 28an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonia* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutzako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,30 »	